

Komiki kutsua du askoren artean osatutako *Ostielal* aldizkariaren ale berriak



Aldizkaria: **Ostielal** 18. zkia.
Askoren artean
Paperzaleak, 2000
52 orrialde
400 pta. (16 libera)

KOMIKIA DU GAI NAGUSI
Paperzaleak Kultur
Elkarteak argitaratzen

duen aldizkariaren azken aleak. Iban Zalduak komikira hurbiltzeko gonbita egiten du bertan, eta hurbilketarako hainbat komiki lan klasiko euskaratu dituzte gero *Ostielal*-koek: Bonvi, Vuillemin, Wolinski, Al Voss, Paul Kirchner, Robert Garay, Prosper Merimee... Egile horiez gain, bertakoak ere aurki daitezke, eta ez hori bakarrik. Jon Imanol Iturriozek *Carmina Burana* kantuarien hitzak ditu mintzagai artikulatu batean; Joxe Azurmendik *In taberna quando sumus* poemari buruz idatzi du; Gotzon Hermosillak, berriz, GG Allin kantariaren ibilbidea gogoratu nahi izan du. Beste hainbat osagai ere aurki daitezke aldizkari honen udako zenbakian.

Joxe Manuel Odriozola, nazio-identitatearen osaketan eskolak duen garrantziaz



Pentsamendua: **Nazio-identitatea eta eskola**
Joxe Manuel Odriozola
Lizarribar
Euskaltzaindia-BBK, 2000
198 orrialde
1.000 pta. (40 libera)

GIPUZKOAKO GAU-

ESKOLEN koordinatzailea eta euskara irakaslea dugu altzoar idazle autodidakta hau. Saiakera zenbaiten egile, gaur aipagai dugun honengatik 1999ko Mikel Zarate saria jaso zuen Odriozolak, eta, izenburuak berak dioen bezala, eskolan nazio-identitatea sendotzeko diren aukerak ditu mintzagai. Hiru zati nagusitan banatu du saiakera egileak: *Eskola eta nazio-identitatea*, *Euskal identitatea eta eskola* eta *Euskal identitatearen dialektika*. Liburuaren atzealdean haxe irakur daiteke: «Eskola izan dugu nazionalismoaren hazia modurik nabarmenenean erein deneko ideologizazio-gunea, eta gaur egun ere ez daude amore emateko gertu Estatu-nazioaren nazionalismoak».

Venezuelan ikusi eta ikasitakoak kontatu ditu Pako Aristik lan honetan



Kronika: **Venezuela, iraultza isilaren hitzak**
Pako Aristi
Txalaparta, 2000
158 orrialde
1.800 pta. (72 libera)

HUGO CHAVEZ DA Vene-

zuelako buru egun. Beste zenbait militarren eta herritarren laguntzaz eman zion amaiera 40 urtetan bi alderdik usteldu arte erdi bana eta aldika partitutako botereari. Aldaketa garaia da ordutik herri hartan. Kalapita naturalek gogor kolpatutakoa, gainera. Horrek guztiak sortu duen giroa ezagutzera abiatu zen Pako Aristi hara, Mikel Markezekin eta *Tribuaren hitz galduak* ikuskizunean kide izan dituen gainerakoekin. Bertan ezagutu zituen uneak, lagunak eta jarrerak liburu honetan eman ditu, kazetaritza asko duen kronika osatuz, bere ohiko umore ukituz, Venezuelen bizi diren zenbait euskal herritarren egoeraren berri emanez bide batez.

Gerezi desiratuak



Ana Urkizaren gerezi itxurako liburu honetako ipuin askok du ezusteko bukaera, nahiz eta tartean amaierarik ez duen ipuinik ere baden

Narrazioak: Desira izoztuak
Ana Urkiza
Elkarlanea, 2000
160 orrialde
1.520 pta. (61 libera)

Imanol Epelde

BAINUJANTZI berriak estreinatu nituen egun bero hartan. Hondartzara nindoan toaila bat sorbaldan zintzilikatuturik. Udara honetako lehen hondartza eguna zen eta ospatu beharra zegoen. Antiojo beltzak, sandaliak, krema potoa, lastozko txapela..., zerbait falta zitzaidan egun pasa eder bat garantizatzen: jate-

ko zer edo zer. Herriko berduraplazatik pasa nintzen gereziak erostera. Aitortu behar dut meloi galant batek tentatuta eduki ninduela, baina, azkenean, 14 gereziko dozena bat erosi nuen. Ana Urkizaren baserriko dozena bat, noski.

Toaila zabal-zabal egin eta etzan nintzen 60ko kremetan errefuxiatu ondoren. Niri begira geratu ziren gereziak eta ezin izan nion tentazioari eutsi. Bat jatea erabaki nuen, Anaren liburuiko lehen ipuina irakurtzea alegia.

Lehen pertsona

Istorio apasionante bat da, lehenengo pertsona kezkatian kontatua. Denborak ahaztarazitako memoriak kontatzen dira gaztetako desira bero-

eroak izozten zaizkion emakume baten ahotik. Bizitzan lerro zuzenik ez dagoen adierazgarri. Bizitzak eskainitako aukeren aukeraketak sorturiko beldurrak azaleratuz.

Olatu eta apar arteko bainuekin tartekatuta nuen gerezi jana ere. Orain gerezi bat, oraintxe bainu bat, gero bi gerezi, geroxeago beste gerezi bat. Guztiek dute elkarrekin zapore bat: desira. Zapore gozoa, garrantza edo gazia duten desirak.

Desirek, izan ere, aukera bat edo bestea egitera garamatzate. Hala, bide berriak urratzen ditugu uneoro gure bizitzetan. Desioak beteko balira, beraz, bidea egina legoke, akabo pasioa, plazerra, beldurra, zoriona, negarra: bizitzeko arrazoia. Beldur horrek, desirak beteko diren

beldur horrek giroten du ipuinen muina.

Desirak bi sailetan banatzen ditu bidenabar. Ezkutukoak batetik eta agerikoak bestetik. Gure desio batzuk geure golkorako gordetzen ditugulako eta besteak azaleraztea errazagoa zaigulako. Mami aldetik gehiago hunkitu naute ezkutukoek, agerikoak agerian daudelako eta ezagutzen ditugulako. Sindrome generalizatua Anaia Handiaren Aroan!

Narrazioaile ezezaguna

Lehenengo pertsonan dago idatzia gehienbat ezkutuko desiren ipuin sorta. Eta oro har hirugarrenean agerikoena. Pertsonaia nagusia gizonezkoa edo emakumezkoa izan daiteke. Eta haien barne mundua azaltzen zaigu dohain handiz, egitasunez jantzita; istorioen gisan, benetan gertatuak bailiran, gertakaria erositako prezio berean saldu nahiko balu bezala.

Ipuinak edo gereziak intentsitate berdintsuarekin jaten dira. Askok dute ezusteko bukaera halere, nahiz eta amaierarik ez duen ipuinik ere baden. Tira, bai: irakurleak ematen diona. Besteen gainetik batek sortu zidan

aparteko zirrara: *Ezezagunaren esku artetik* izenekoa. Zapore onena utzi didan gerezia, zalantzarik gabe! Istoria ondo eramana dago amaierara eta erremate kategorikoa ematen dio, nire ustetan. Gai nontzeko ipuinak ere gustura leitzen dira bihotzondokoak dosi txikiagoetan jasoaz.

Hizkera xumea darabil gainera, lehen irakurraldian ulertzeko modukoa. Batzuetan idazketa erritmoa falta dela iruditzen zait. Eta bestetan kutsu artifiziala ematen dion zenbait hitz sartzen dituela esango nuke. Beste euskaltzaitako hitzetara jotzen du tarteka edo oso gutxi erabiltzen diren hitzak darabiltza noiz edo

noiz. Haietako hitz asko jokoz kanpo dauden usatearekin gelditzen da bat. Ipuin gehientsuenak irakurritatik itzuli nintzen hondartzatik etxera. Gorri-gorri, komunista fidelenak baino gorriago, eguzkiak erreta.

Sukaldeko mahai gainean utzi nituen bi-hiru gereziak inork jan nahi bazituen. Arreba etxeratu zen geroxeago Consumer-eko poltsa bat eskuan. Gerezi gehiago ekarri zituela pentsatu nuen hasieran, zalea baita oso. Baina ez, udarako liburu denda mugikorretako batean erositako Ana Urkizaren liburuak ekarri zuen.

Hizkera xumea darabil, lehen irakurraldian ulertzeko modukoa